


Eskulapio sugea, osasunaren zaindari

Joxerra Aihartza



FITXA TEKNIKOA

Eskulapio sugea

Espezia:	<i>Elaphe longissima</i>
Familia:	kolubridoak
Ordena:	eskuamatuak
Klasea:	narrastiak

Europako kulturen erroetan ugari dira sugeak izaki gaizto eta beldurgarritzat jotzen dituzten ipuin eta mitoak. Pliniok berak, sugeak, hildako gizaki zitalenen bizkarrezurretik sortutako piztiak zirela zioen, eta beste sinesmen batzuen arabera, deabruak ernaldu-

tako oilarren arrautzetatik jaiotzen omen dira, eta handik aurrera apoak, arrabioak, eta mota guztietako landare pozoitsuak jaten omen dituzte euren edena ekoitzi ahal izateko. Bibliara jotzen badugu, berriz, sugearen maltzurkeria ageri zaigu Adan eta Ebaren bekatuaren eragile nagusi gisara. Eta modu berean, Europako Erdi Aroko mitologiari gehienetan, herensugeak ziren izakirik beldurgarri eta gaiztoenak. Azken finean, herensugeak suge erraldoiak ditugu; sorgin-keriaren eta ifernuko indarren menpe dauden suge erraldoiak, alajaina!

Sugeen aurkako beldur eta mesfidantzak erabat jatorri kulturala du ordea, eta ez da berdina izan, ez

herri guztietan, eta ez une historiko guztietan. Bizkar arre gorritza eta sabel horiska argia dituen *Elaphe longissima* suge leun eta liraina osasunaren zaindaritzat hartu zen antzinako zenbait herrian, eta greziarrek, esaterako, Asklepio osasunaren jainkoaren ministrari zela sinesten zuten.

Asklepio —edo Eskulapio, erro-matarrentzat-, Apoloren semea, medikuntzaren jauna zen, eta normalean oinetan oilarra eta besoan kiribilkatuta sugea zituela irudikatzen zuten. Eta era berean, Greziako Epidauro hirian eraiki zioten tenpluan milaka suge biltzen omen ziren, jainko maitagarriaren aginduaren zain. Bide horretan, Asklepio edo Eskulapioren sugeekiko mirespen eta begirunea mantendu egin zen erromatarren kultura nagusitu zenean ere, eta Tiberio zesarrek, esaterako, bere azken urteetan gaixotasunen batek jo eta hiltzeko beldur zelarik, honelako sugez beteta mantentzen zuen bere logela, euren babesa segurtatu nahian.

Gaur egun oraindik ere Eskulapio sugea medikuntzaren sinbolotzat hartzen da, eta gure herri eta hirietako botika-dendetan ikus genezake bere irudia, edalontzi baten inguruan kiribilkaturik.

Eskulapio sugea (*Elaphe longissima*) liraina da oso, azkarra, lurrean biziki mugitzen dena eta erdi-purdiko igerilaria. Zuhaitzetan gora egiteko sekulako abilezia du

Bere dietari dagokionez, ale helduak batez ere mikrougatzunez, hegatziz eta bestelako narrastiez elikatzen dira.



M. M. Elosegi



Elaphe longissima suge leun eta liraina osasunaren zaindaritzat hartu zen antzinako zenbait herritan, eta greziarrek, esaterako, Asklepio osasunaren jainkoaren ministrari zela sinesten zuten.

ordea; ezkata bentralen alde askeen ertzetan dituen karenak oso lagungarri gertatzen baitzaizkio lan horretarako. Eguzkizalea den arren, bero handiegia ez du maite, eta temperatura gogokoenak 26 eta 30 °C bitartekoak ditu, giroak 32 °Ctik gora eginez gero babesleku freskoagoren baten bila ezkutatu egiten delarik. Hau dela eta, Eskulapio sugea egunez bizi da batipat, nahiz eta, tarteka, batera eta bestera, ehizakiren baten bila ilunabarrean ere ikus daitekeen.

Bere dietari dagokionez, ale helduak batez ere mikrougaztun (arratoi, sagu, basasagu, satain, satitsu, muxar, eta abarrez), hegatziz (txito eta arrautzez batipat), eta bestelako narrastiez (sugandila eta muskerrez bereziki) elikatzen dira. Euren ehizakiak ahoaz eutsi, eta konstrikiroz hiltzen dituzte irentsi aurretik. Ale gazteek berriz, sugandilak, eta ornogabeak ugari harrapatzen dituzte gosea asetzeko, hauen artean arruntenak kilkirrak, matxinsaltoak, eta bestelako intsektuak izanik. Bere etsaiak ordea, arrano sugezalea (*Circaetus galli-*

cus), eta lepahoria (*Martes martes*), lepazuria (*Martes foina*), ipurtatxa (*Mustela putorius*), azkonarra (*Meles meles*) dira, besteak beste.

Eskulapio sugea soin liraineko animalia dotore eta ikusgarria dugu. Burua estua eta ongi definitua, eta beginini biribilak ditu, eta bere ezkata dorsalak, launak, erronboidalak, leunak edo karena ahulez jantziak izaten dira. Koloreari dagokionez, helduetan arre gorritza izaten da nagusi alde dorsalean, eta alboetan argiagoa, sabelaldera hori argira aldatzen delarik. Normalean marrazki nabarmenik izaten ez badute ere, batzuetan luzetara arrasto leunak ikus daitezke zenbait aletan. Garrondoa ilunxeara dute, eta lepoaren alde bietan, barailaren atzean eta gorantz hedatuz, orban horizta argi eta ahulak nabari zaizkie. Tamainaren aldetik, 190 edo 200 cm-rainokoak neurtu diren arren, normalean 140-170 cm bitartekoa izaten da, eta arrak handiagoak izan ohi dira emeak baino.

Maiatzaren azkenetan, edota ekainaren hasieran sekulako ikuskizuna eskain dezake Eskulapio sugeak, horretarako zorterik izanez gero. Hain zuzen, narrasti hauen araldia izaten baita sasoi horretan, eta sexu-jotzearen aitzin-urratsak ikusgarri eta bereizgarriak izaten dira oso. Bata bestearen atzetik

ziztu bizian eta elkarri segika aritu ondoren, arrak emea ahoaz burutik, lepotik edota soinetik eutsi, eta elkarrekin trabatu arte kiribilkatzen dira, kopula jarrera bitxi horretan gauzatzen delarik. Zenbait aste geroago, uztailean edota abuztuaren hasieran, emeak 5-20 arrautza handi erruten ditu, bereak zuhaitz-zuloren batean, harri-tarteetan, zimaur azpian, orbel artean eta abarretan ezkutatu. Arrautza hauek baberrun-itxurako egitura irregular, zuriska eta handiak izaten dira, eta normalean 35-60 mm-ko luzera, 17-28 mm-ko zabalera, eta 10 g inguruko pisua izaten dute. Bi hilabeteren buruan, hots, irailean zehar edota urriaren hasieran, 14-25 cm luzeko kumeak jaiotzen dira bertatik, eta denbora laburrean hibernatzeko erretiratu beharra izango dute gainera, urriaren azkenetarako, eta helduek bezalaxe, mikrougaztunen baten zuloa edota harri-tarteren bat bilatu behar dute, negu luzeak irauten duen artean babesa eta atsedena seguru izan ditzaten.

Eskulapio sugea Europako erdialdeko eta Mediterranioko espe-

52. orrialdean du segida.

Eskulapio sugea soin liraineko animalia dotore eta ikusgarria dugu.

